OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO HAUR ESKOLAKO 0-2 URTEKO HAURRENTZAT ETA HEZITZAILEENTZAT JANGELA-ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA

PROZEDURA IREKIA OSO ERRAZTUA

-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA-

ESPEDIENTE KODEA:	2026KO170005

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren helburua da Oiartzungo Haur Eskolako jangela zerbitzua erabiltzen duten 0-2 urteko haur eta hezitzaileentzako otorduak (bazkariak) prestatzea, garraiatzea eta dagokion baldintzetan eskaintzea bermatuko duen zerbitzua kontratatzea, bi lotetan banatuta:

- I. lotea: otorduen prestaketa, garraioa eta jangela-zerbitzu integrala (2026ko abenduaren 1etik 31ra).
- II. lotea: otorduen prestaketa, garraioa eta entrega (2027ko urtarrilaren 1etik uztailaren 9ra).

Hori guztia, jangela elikatzeko espazioa ez ezik hezkuntza-proiektuaren erdigunean kokatzen den tresna pedagogiko eta hezitzailea ere badela ulertuta, eta haurren lehen urteetako elikadura-ohitura osasuntsuak eta egokiak finkatzeko, familien kontziliazioa errazteko, segregazioari bideak ixteko eta tokiko elikadura-sistema osasuntsua bultzatzeko asmoarekin.

2.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA EGINBEHARRAK

Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko, zerbitzuak ondoko eginbeharrak bilduko ditu:

- Elikagaien hornidura eta kudeaketa: otorduak prestatzeko beharrezkoak diren kalitatezko elikagaiak zehaztu eta aurreikusi, eskatu, erosi eta behar bezala biltegiratzea. Horretarako, Oiartzungo Udalak ezarritako erosketa-irizpideak beteko dira, besteak beste, elikagaiak bertakoak eta garaian garaikoak izatea.
- Menuen diseinua eta egokitzapena: jangela-zerbitzuaren erabiltzaileen adina, ezaugarriak eta behar nutrizionalak kontuan hartuko dituzten menu orekatuak prestatzea, betiere osasun- eta elikadura-arloan ezarritako eskakizunak eta espezialistek ezarritako irizpideak betez. Menu-proposamenak hiru hilean behin aurkeztuko zaizkio Oiartzungo Udalari, eta haren aurretiazko onespena beharko dute.
- Otorduen prestaketa: menuak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren elikagaiak eta lehengaiak behar bezala manipulatu, prestatu eta tratatzea, dagozkion prozedurak, indarrean dagoen osasun- eta higiene-araudia eta elikagaien segurtasunari buruzko betekizunak errespetatuz.
- Garraioa eta entrega: prestatutako otorduak Oiartzungo Haur Eskolaraino garraiatzea eta legezko baldintzetan entregatzea, garraioan zehar elikagaien kalitatea, segurtasuna eta tenperatura egokiak bermatuz.
- I. lotean, gainera, otorduak dagokion labe beroan sartzea, ontziratzea edo enplatatzea eta ikasgeletara eramatea. Halaber, bazkaria amaitu ondoren, erabilitako ontziteria jaso eta Oiartzungo Haur Eskolako ontzi-garbigailu industrialean garbitzea. Garbitutako ontziteria dagokion lekuan utzi ondoren, otorduak Haur Eskolara eramateko erabilitako gainerako tresneria eta material propioa bildu eta egunero esleipendunaren instalazioetara eramatea.

ESKUe9dca247-fe7e-4c90-b757-bdafbbec8fb0

- Higiene- eta osasun-betekizunak: zerbitzua ematean aplikatu beharreko osasun- eta higiene-araudi guztia zorrotz betetzea, bereziki elikagaien manipulazioari, kontserbazioari, garraioari eta banaketari dagozkien neurriak.
- Beharrezko bestelako prestazioak: baldintza agirietan berariaz aurreikusi ez arren kontratuaren xedea behar bezala betetzeko ezinbestekoak diren prestazioak, behar bezala justifikatuak badira, Oiartzungo Udalaren eta esleipendunaren artean adostuko dira, kontratuaren xedea eta ezarritako baldintzak errespetatuz.

Kontratuaren exekuzioak, beraz, xedea behar bezala betetzeko zerbitzuaren diseinua, planifikazioa, prestaketa, garraioa, entrega eta antolaketa barne hartuko ditu, betiere baldintza agirietan zehaztutako baldintzen arabera, eta lote bakoitzari dagozkion berezitasunekin.

Halaber, zerbitzua une oro Oiartzungo Udalaren zuzendaritzaren eta jarraibideen arabera emango da, eta lanak Oiartzungo Udalarekin eta zuzendaritzarekin koordinatuko dira, betiere erabiltzaileek asetasun mailarik handiena izate aldera.

3.- ELIKAGAIAK EROSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren helburua, jangela zerbitzua eskaintzearekin batera, haurren lehen urteetako elikadura-ohitura osasuntsuak eta egokiak finkatzea, familien kontziliazioa erraztea, segregazioari bideak ixtea eta tokiko elikadura-sistema osasuntsua bultzatzea ere badenez, otorduak prestatzeko beharrezkoak diren elikagaiak erosterakoan honako irizpideak jarraituko dira:

- Ekologikoa: produktuen gehiengoa ingurumena zaintzen duten ekoizpen-sistemetatik etorriko da.
- Bertakoa (0 km): Oiartzualdeko eta inguruko ekoizleak lehenetsiko dira.
- Freskoa: Elikagai ultraprozesatuak eta aurrez sukaldatutakoak kanporatuko dira.
- Garaian Garaikoa: naturaren eta urtaroen zikloak errespetatuko dira.
- Lehen Sektoreak Hornitua: ekoizle txikiekin zuzeneko lan-harremana kudeatuko da.

Halaber, menuak prestatzerakoan honako konpromiso nutrizionalak hartuko dira aintzat:

- Barazkiak eta frutak: egunero gutxienez 100 gramo barazki bermatzea menu bakoitzeko, eta garaian garaiko fruta freskoa (astean 5 egunetik 4tan).
- Proteina kalitatezkoa eta mugatua: animalia-jatorriko proteina murriztu egingo da, proteina begetalari (lekaleak) lekua eginez. Erabiltzen den haragia kalitatezkoa eta ekologikoa izango da (behiki ekologikoa).
- Mugak: aurrez sukaldatutakoak gehienez hilabetean behin; frijituak eta azukre gehituzko elikagaiak ezabatu edo guztiz mugatuko dira.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena, guztira, 2026-2027 ikasturteko 2026ko abenduaren 1etik 2027ko uztailaren 9ra artekoa izango da, horrela banatuta:

- I. lotearen iraupena: 2026ko abenduaren 1etik 31ra.
- II. lotearen iraupena: 2027ko urtarrilaren 1etik uztailaren 9ra.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

ESKUe9dca247-fe7e-4c90-b757-bdafbbec8fb0

Aurreikusitako kontratuaren arabera, zerbitzuaren kostua 40.950 eurokoa da BEZik gabe, eta 45.045 eurokoa % 10eko BEZa barne, 2026ko abenduren 1etik 2027ko uztailaren 9ra, eta bi loteak kontuan hartuta.

Prezioan sartuta egongo dira kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak.

SPKLeko 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren banaketa honako hau da:

Giza baliabideak	13.764,70
Elikagaiak	20.647,06
Kostu zuzenak	**34.411,76**
Zeharkako kostua (% 10)	**3.441,18**
Etekin industriala (% 9)	**3.097,06**
GUZTIZKO KOSTUA (2026ko abenduaren 1etik 2027ko uztailaren 9ra), BEZik gabe	**40.950 €**
BEZa (%10)	4.095 €
GUZTIZKO KOSTUA (2026ko abenduaren 1etik 2027ko uztailaren 9ra), BEZa barne	**45.045 €**

Kontuan hartuta Haur Eskolan 2026/2027 ikasturtean 183 ikas-egun dauzkatela, zehazki 2026ko abenduaren 1etik 31ra 15 ikas-egun eta 2027ko urtarrilaren 1tik uztailaren 9ra arte 120 ikas-egun edukirik, eta zerbitzua guztira 43 pertsonentzat aurreikusten dela, ondorengo kalkulua egiten da lote bakoitzerako, beharko diren otorduen aurreikuspenean oinarrituta:

I. lotea: otorduen prestaketa, garraioa eta jangela-zerbitzu integrala (2026ko abenduaren 1etik 31ra):

43 pertsona x 15 egun = 645
Denak joaten badira bajarik gabe.

43 ikasle x 15 ikas egun	645 otordu
GUZTIZKO KOSTUA, BEZik gabe	**4.950 €**
Otorduko kostua, BEZik gabe (4.950 € / 645)	otorduko 7,67 €
GUZTIZKO KOSTUA, BEZa barne	**5.445 €**
Otorduko kostua, BEZa barne (5445 € / 645)	otorduko 8,44 €
Otordu bakoitzaren kostua, BEZik gabe	**7,67 EURO**
Otordu bakoitzaren kostua, BEZa barne	**8,44 EURO**

II. lotea: otorduen prestaketa, garraioa eta entrega (2027ko urtarrilaren 1etik uztailaren 9ra):

43 pertsona x 120 egun = 5160
Denak joaten badira bajarik gabe.

43 ikasle x 120 ikas egun	5160 otordu
GUZTIZKO KOSTUA, BEZik gabe	**36.000 €**
Otorduko kostua, BEZik gabe (36.000 € / 5160)	otorduko 6,97 €
GUZTIZKO KOSTUA, BEZa barne	**39.600 €**
Otorduko kostua, BEZa barne (39.600 € / 5160)	otorduko 7,67 €

ESKUe9dca247-fe7e-4c90-b757-bdafbbec8fb0

Otordu bakoitzaren kostua, BEZik gabe	**6,97 EURO**
Otordu bakoitzaren kostua, BEZa barne	**7,67 EURO**

Halere, kontuan hartu behar da hemen adierazitako pertsonen kopurua eta otorduen kopurua Udal honek duen informazioaren arabera egindako aurreikuspenetatik ondorioztatukoak direla eta, beraz, zerbitzuaren guztizko kostua ere aurreikuspen horietatik abiatuta kalkulatu dela.

6.- ORDAINTZEKO MODUA

Zerbitzuaren prezioa hileko ordainketen bidez ordainduko da.

Halere, erabiltzaileren batek bere hutsegitea bezperako 16:00ak baino lehen jakinarazten baldin badio Haur Eskolari, pertsona horren egun horretako otorduaren zenbatekoa hileko ordainketatik deskontatuko da.

Halaber, erabiltzaileren batek ezinbesteko arrazoiengatik eta behar bezala justifikatuta jangela zerbitzua erabiltzeari uzten baldin badio, Oiartzungo Udalak hala erabakita, baja hori enpresari komunikatu eta hurrengo hilabetetik aurrera pertsona horri dagozkion otorduen zenbatekoa hileko ordainketetatik deskontatuko da.

7.- ERABILTZAILEEK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA

Oiartzungo Haur Eskolako jangela zerbitzuagatik erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak Oiartzungo Udalak kobratuko ditu, Oiartzungo Udaleko Udalbatzak onartu eta iragarritakoaren arabera.

8.- KONTRATURA ATXIKITU BEHARREKO GIZA BALIABIDEAK

Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko, esleipendunak zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak izan beharko ditu, bai kopuruari bai kualifikazioari dagokienez.

Kontratuaren bi loteen prestazioak desberdinak direnez, lote bakoitzean zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren langile-profilak honako hauek izango dira:

I. lotea: otorduen prestaketa, garraioa eta jangela-zerbitzu integrala (2026ko abenduaren 1etik 31ra):

- Sukaldaria: sukaldeko eginkizunez arduratuko den langileak II. mailako Lanbide Heziketako titulua izan beharko du, ostalaritza adarrekoa, eta gutxienez bi urteko lan-esperientzia.
- Sukaldeko laguntzailea: laguntzaile-eginkizunak beteko dituen langileak Eskola Graduatuaren titulua eta elikagaiak manipulatzeko agiria izan beharko ditu, eta gutxienez urtebeteko lan-esperientzia. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Europako Erreferentzia Markoaren B2 maila edo baliokidea izan beharko du, baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agirian finkatutakoarekin bat.
- Garraiolaria: otorduak prestaketa-zentrotik Oiartzungo Haur Eskolara garraiatu eta dagokion entrega egiteko beharrezkoak diren eginkizunak beteko dituen langilea. Horretarako, erabiliko duen ibilgailua gidatzeko beharrezko baimena izan beharko du.

II. lotea: otorduen prestaketa, garraioa eta entrega (2027ko urtarrilaren 1etik uztailaren 9ra):

ESKUe9dca247-fe7e-4c90-b757-bdafbbec8fb0

- Sukaldaria: sukaldeko eginkizunez arduratuko den langileak II. mailako Lanbide Heziketako titulua izan beharko du, ostalaritza adarrekoa, eta gutxienez bi urteko lan-esperientzia.
- Garraiolaria: otorduak prestaketa-zentrotik Oiartzungo Haur Eskolara garraiatu eta dagokion entrega egiteko beharrezkoak diren eginkizunak beteko dituen langilea. Horretarako, erabiliko duen ibilgailua gidatzeko beharrezko baimena izan beharko du.

II. lotearen prestazioen ezaugarriak kontuan hartuta, ez da beharrezkoa sukaldeko laguntzailearen figura.

Aurreko profilak zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren lanbide-profilak dira. Hala ere, ez da ezartzen profil horiek dituzten langileek lanaldi osoz edo gutxieneko lanaldi jakin batez aritu behar dutenik. Esleipendunak bere antolaketa eta ekoizpen-beharren arabera zehaztuko du langileen dedikazioa, betiere kontratuaren prestazio guztiak behar bezala eta ezarritako ordutegi eta baldintzetan betetzen direla bermatuz.

Era berean, esleipendunak langileen ordezkapenak eta zerbitzuaren jarraitutasuna bermatu beharko ditu, langileen absentziak edo bestelako gorabeherak gertatzen direnean, eta ordezko langileek dagokien eginkizuna betetzeko beharrezko kualifikazioa, gaitasuna eta baldintzak bete beharko dituzte, goian ezarritakoaren arabera.

Halaber, zerbitzuaren ezaugarriak eta erabiltzaileen adina kontuan hartuta, esleipendunak bi loteetan dietetikako eta nutrizioko profesional baten laguntza teknikoa izan beharko du, menuen plangintza, berrikuspena eta nutrizio-egokitzapena bermatzeko. Profesional horren esku-hartzea ez da nahitaez zerbitzuaren ohiko prestazioan modu presentzialean egingo, baina esleipendunak kontratuaren indarraldian profesional horren eskuragarritasuna bermatu beharko du, zerbitzuaren beharren arabera.

Era berean, esleipendunak kontratuaren kudeaketa administratibo eta operatiboa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak izan beharko ditu bi loteetan, besteak beste, Oiartzungo Udalarekiko komunikazioa, dokumentazioaren eta fakturazioaren kudeaketa eta zerbitzuaren gorabeheren kudeaketa bermatzeko.

Esleipendunak aurreko langile eta profesionalek dagozkien eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren titulazio, prestakuntza, kualifikazio eta esperientzia dituztela egiaztatu beharko du, Oiartzungo Udalak hala eskatzen duenean.

Zerbitzuaren antolaketa esleipendunaren erantzukizuna izango da, eta hark zehaztuko du zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa den langile-kopurua eta langileen dedikazioa, betiere kontratuaren baldintza tekniko eta funtzionalak betetzen direla bermatuta.

Hori guztia behar bezala egiaztatu beharko da, kontratua esleitu aurretik. Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko gaitasun hori ziurtatzen duen agiria aurkeztu daiteke edo, bestela, dagokion froga egingo du Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako sailak, bertan eskuratutako agiriak ez duela inongo baliorik izango esleipen honetatik kanpo.

Kontratuaren baldintza hau funtsezko betebeharra da eta, beraz, ez betetzeak zehapenak ezartzea ekar dezake edo kontratua amaitzea eragin dezake, SPKLren 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

ESKUe9dca247-fe7e-4c90-b757-bdafbbec8fb0

9.- INSTALAZIOAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Otorduak Oiartzungo Haur Eskolako instalazioetan entregatuko dira.

I. lotean, gainera, otorduak behar bezala ontziratu edo enplatatu eta ikasgeletara eramango dira, eta bazkaria amaitu ondoren erabilitako ontziteria jaso eta garbituko da, horretarako Oiartzungo Udalak honako tresnak jarriko dituela kontratistaren eskura:

- Mahai beroa
- Ontzi-garbigailu industriala

Kontratistak izango du erabiltzen dituen udal-lokaletako eta udal azpiegituren, materialen eta tresnen erabilera eta mantentze egokiaren gaineko erantzukizuna, eta Oiartzungo Udalarekin koordinazioan arituko da.

10.- KONTRATISTAREN BESTELAKO BETEBEHARRAK

Kontratistak baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agirian ezarritako baldintza bereziak bete beharko ditu, lan arloari, hizkuntza irizpideei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta ingurumen irizpideei dagokienean.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira eta, hortaz, SPKLren 202.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak zigorrak ezartzea ekar dezake edo kontratua amaitzea eragin dezake, 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Horrez gain, kontratistak honako betekizunak izango ditu:

- Kontratuaren arduradun bat izendatu behar du.
- Oiartzungo Udalari jakinaraziko dizkio Oiartzungo Udalak eta Eusko Jaurlaritzak emandako irizpideen arabera antolatutako urteko egutegia eta menuak.
- Zerbitzua egoki eskaintzen dela zainduko du.
- Egiten duen jangela zerbitzuaren jarduerarengatik, erreklama dakiokeen erantzukizun zibila estaltzen duen aseguru-poliza izenpetu izanaren egiaztagiria legeak ezarritako terminoetan.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Kultura Teknikaria
Elektronikoki sinatua

Nork Sinatua / Firmado por: JOSEBA ANDONI EIZMENDI GARATE - 34083997K
2026/11/04 09:43:56

EKS | CSV: ESKUe9dca247-fe7e-4c90-b757-bdafbbec8fb0
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310